



## Bigarren Hezkuntzako 2008ko LPE A talderako sarbidea

### Promozio Bertikalarako eskaintako lanpostuak

| ESPEZIALITATEAK                  | Hizkuntzak |       |
|----------------------------------|------------|-------|
|                                  | Gazt.      | Eusk. |
| Enpresa administrazio            |            | 2     |
| Biologia eta Geologia            | 12         | 7     |
| Marrazketa                       | 3          | 3     |
| Ekonomia                         |            | 1     |
| Gorputz Hezkuntza                | 5          | 3     |
| Filosofia                        | 8          | 4     |
| Fisika eta kimika                | 3          | 2     |
| Formación y Orient. Lab.         | 3          |       |
| Frantsesa                        | 6          | 4     |
| Geografia eta Historia           | 18         | 9     |
| Ingelesa                         | 14         | 15    |
| Parte-hartze<br>soziokomunitario |            | 1     |
| Latina                           | 2          | 1     |
| Gaztelania eta Literatura        | 29         | 11    |
| Euskara eta Euskal Literat.      |            | 18    |
| Matematika                       | 28         | 13    |
| Música                           |            | 4     |
| Org. y Proy. de Fab. Mecán.      | 4          | 1     |
| Org. y Proy. de Mant. Vehíc.     | 1          |       |
| Org. y Proy. de Sist. Energ.     | 2          |       |
| Proc.diag. clín prod. Ortop.     | 1          |       |
| Procesos de produc. agraria      | 1          |       |
| Procesos Sanitarios              | 1          |       |
| Psikologia eta Pedagogia         | 11         | 4     |
| Sistemas Electrónicos            | 1          |       |
| Sistemas Electro y automátic     | 1          |       |
| Teknologia                       | 11         | 8     |
| OSOTARA                          | 165        | 111   |

**Nafarroan dauden Curriculumak:**

**DBH:** 61/2002 FORU DEKRETUA, martxoaren 25ekoak, 67/1993 F.D., otsailaren 22koa, aldatzen duena: (2002ko apirilaren 24ko NAO) 2. eta 4. mailarako; eta 25/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, 1. eta 3. mailarako.

**Batxilergoa:** 89/2002 Lege Forala, martxoaren 27koa, (2002ko maiatzaren 3ko NAO)

**BALDINTZAK**

B taldean sailkatutako irakasle funtzionarioa izatea eta ondorengo baldintzak betetzea:

- Behar diren titulazioak izatea.
- Karrerako funtzionarioa izatea gutxienez sei urtez.

Goian aipaturiko eskakizunen jabe izan behar da eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako.

Aukera hau hartzen dutenek ezin izango dute parte hartu espezialitate berdineko txanda librean, ez eta ondoren txandaz aldatu ere.

**OPOSIZIOALDIA**

- ✓ Epaimahaiak ateratako zortzi edo bederatziz gaietatik (titulu-espezialitate komuntaduraren arabera) izangaiak bat aukeratu eta honen ahozko azalpena egingo du.
- ✓ Gaiaren adierazpen didaktikoarekin osatuko da azalpena, aukeraturiko ziklo edo kurtso zehatz bati zuzendua egongo delarik.
- ✓ Azalpenaren prestakuntzarako bi ordu egongo dira eta material osagarria eta gidoi bat erabili ahal izango da. Azalpenak 45 minutu iraungo du gehienez eta epaimahaiarekin ondorengo eztabaidak 15 minutu.
- ✓ Proba 0-10 bitarte baloratuko da eta izangaiak 5 puntu atera beharko ditu gutxienez gainditzeko.

Oposizioa eta Lehiaketaren faseak honela puntuatuko dira:

- ✓ Oposizioa %55
- ✓ Lehiaketa eta merezimenduak %45
- ✓ Gorputz Hezkuntza, Teknologia eta Lanbide Heziketako espezialitate espezifikoetan ariketa praktikoa bat egingo da librea egingo den bezalakoxea. Espezialitate berebirean lanean ari direnak ez dute halakorik egin behar.

Kasu honetan puntuaketa honela egingo da: atal praktikoa %30 eta ahozko azalpenak eta eztabaidak %70.

- ✓ Hizkuntzetako espezialitate probak dagokion hizkuntzan egin behar da. Gainerako Euskarazko plazak eskuratzeko bi hizkuntzak erabil daitezke, euskara zein gaztelera.

**GAITEGI OFIZIALAK:**

- ✓ **Bigarren Hezkuntzako Irakasleak:**
  - **Euskal Hizkuntza eta Literatura:** 374/1999 Lege Forala azaroaren 3koa (abenduaren 20ko NAO) 86/2000 Lege Forala martxoaren 9koak eraldatuta ( martxoaren 20ko NAO)
  - **Lanbide Heziketako Espezialitateak (0237 Informatika barne):** 1996ko otsailaren 1eko Agindua. (1996ko otsailaren 13ko BOE).
  - **Beste espezialitateak:** 1993ko irailaren 9ko Agindua (1993ko irailaren 21ko BOE)
- ✓ **Lanbide Heziketako Irakasle teknikoak:** 1996ko otsailaren 1eko Agindua. (1996ko otsailaren 13ko BOE)
- ✓ **Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleak:**
  - **Beste espezialitateak:** 1993ko irailaren 9ko Agindua (1993ko irailaren 21ko BOE)

LEHIAKETA / MEREZIMENDUAK

| MEREZIMENDUAK- GEHIENEZ 10 PUNTU  | PUNTUAK |
|---|---------|
| <b>I. Arlo publikoan EGINDAKO LANA (gehienez 5,500 puntu)</b>   |         |
| <p>1. Karrerako funtzionario izaera urtebetez (geh. 4,000) (zatikia: 0,0416 puntu/hilabetea). Sei urtetik gorako zerbitzuak hartuko dira kontuan.</p> <p>2. Funtzio espezifiko eta ebaluazio jarduerak (geh. 2,500)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Urtebetez zuzendari. (zatikia: 0,0208 puntu/hilabetea). 0,250</li> <li>-Urtebetez ikasketa-buru, idazkari, zuzendariorde, idazkariorde, eta ikastetxe publikoetako parekoak. (zatikia: 0,0166 puntu/hilabetea). 0,200</li> <li>-Ikastetxe Publikoetan beste zuzendaritza karguetan (zatikia: 0,0125 puntu/hilabetea). 0,150</li> <li>-Urtebetez ikuskaritzan egindako urtea (zatikia: 0,0083 puntu/hilabetea). 0,100</li> <li>-Irakasle lanetan balorazio positiboa 0,250</li> </ul>  |         |
| <b>II. FORMAIZIOA ETA PRESTAKUNTZA (gehienez 3,000 puntu)</b>   |         |
| <p><b>Etengabeko prestakuntza:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Etengabeko prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak, aurkezturiko espezialitatearekin, edo hezkuntza-antolaketa, hezkuntzan aplikatutako teknologia berriak, didaktika, hezkuntzako psikopedagogia edota soziologiarekin lotuta daudenean, bai Hezkuntza Administrazioak edota Unibertsitateek deitutakoak, bai etengabeko prestakuntza planak barne hartzen dituenak eta hezkuntza administrazioarekin kolaboratzen duten erakundeek antolatutako edota Hezkuntza Administrazioak onartzen dituen jarduerak:</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) 3 kreditutik gora 0,200</li> <li>b) 10 kreditutik gora 0,500</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Soilik Musika espezialitateari dagokionez, Musika Kontserbatorioek antolatutako ikastaroak modu bertsuan baloratuko dira.</li> <li>✓ Atal honetan adierazten diren baldintzak betetzen dituzten 2 kreditu baino gehiagoko ikastaroak metatu ahalko dira.</li> <li>✓ Ziurtagiria orduetan badator 10 ordu=kreditu 1</li> </ul> |         |
| <b>III. MEREZIMENDU AKADEMIKOAK ETA BESTELAKOAK (gehienez 3,000 puntu)</b>  |         |
| <b>III.1 MEREZIMENDU AKADEMIKOAK (geh. 1,500)</b>   |         |
| <p><b>1. Gradu-ondokoa, Doktoretza eta aparteko sariak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Baldintza ez den kasuetan, Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiri-Diploma (RD 778/1998) edo Master Titulu Ofiziala (RD 56/2005), ikerketarako gaitasuna. 1,000</li> <li>✓ Doktore Titulua 1,000</li> <li>✓ Doktoretzan aparteko saria 0,500</li> </ul> <p><b>2. Bestelako unibertsitate-titulazio ofizialak (aurkezteko baldintza ez direnak)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Lehenengo zikloko titulazioak 1,000</li> <li>✓ Bigarren zikloko titulazioak 1,000</li> </ul> <p><b>3. Erregimen Bereziko Irakaskuntzetako eta Berariazko Lanbide Heziketako Titulazioak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Musika edo Dantzako Lanbide-titulua 0,500</li> <li>b) Goi-mailakoa edo baliokidea den HEOKo egiaztagiria, EGA edo baliokidea 0,500</li> <li>c) Goi-mailako Arte Plastiko eta Diseinuko Teknikari Titulua 0,200</li> <li>d) Goi-mailako Lanbide Heziketako Teknikari Titulua 0,200</li> <li>e) Goi-mailako Kirol Teknikari Titulua 0,200</li> </ul>      |         |
| <b>III.2 BESTE MEREZIMENDUAK (geh. 1,500)</b>   |         |
| <p><b>1.</b> Espezialitatearekin lotutako argitalpen didaktikoak eta zientifikoak edo curriculumaren alderdi orokorrak edo eskola antolakuntza: gehienez 1,5 puntu</p>  |         |